

# Irungo EAJ-PNV

*Zure hirian zer gertatzen den ezagutzuz*

Irion



EAJ-PNV Irungo Udal Taldearen buletina 2014-05-30

## Berri nabarmenak



### Badiako bidearen eraikuntza lehenengo urrats bezala Jaizubiako paduren eta Plaiaundiren arteko lotura lehenesten dute Irungo eta Hondarribiko EAJ-PNVk

Xabier Iridoy Irungo EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak eta Juan Luis Silanes Hondarribiko Udaleko Ingurumen arloko zinegotziak lan bilera burutu dute gaur goizean, bi udalerrien arteko loturaren baitan, Txingudiko paduren leheneratzerako eta loturarako egin beharreko esku-hartzeen lehentasunak zehazteko helburuarekin. EAJ-PNVk urte bat baino gehiago darama Txingudi Badiaren eta Bidasoaren kontserbazioan Eusko Jaurlaritzarekin elkarlan estuan, eta bereziki, eskualdeko hiru herriak bizikleta eta oinezkoentzako ibilbidez lotzeko proiektuan. Zinegotzi irundarrak aditzera eman duenez, «badiako hiru udalerririk lotzeko apustu sendoa egin du EAJ-PNVk, ingurune naturala errespetatuz beti ere, eta ildo horretan ari gara lanean hilabete hauetan guztietan modu bateratuan».

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailarekin egindako hainbat bileretan proiektu honek Bidasoa eskualderako duen garrantzia agerian utzi du EAJ-PNVk, eta euskal erakundeak Txingudi eremuan egin beharreko esku-hartzeen barruan sartu du. Era berean, Hendaia eta Hondarribia bizikleta ibilbidez lotzeko Txingudiko eremu naturala leheneratzeko planerako 500.000 euroko aurrekontu partida bideratu du. Kopuru horren zati bat lehentasunen diagnostikoa eta azterketa egiteko erabili da, administrazio eta intereseko eragileen eztabaidarako oinarri gisa. Horri plan zuzentzaile batek jarraituko dio, zehaztutako lehentasunak irudikatu, ordenatu eta programatuko dituena, eta adostasuna ahalbidetuko duena. Horretaz gain, Jaizubia eta Amuteko paduren arteko lotura hobetzeko eta Jaizubiako oinezkoen zirkuitua ixteko helburuarekin esku-hartzeak aurreikusten dira aurtan. Eta parke ekologikoko habitataren mesedetan iaz hasitako lanekin ere jarraituko dute.

Hain zuzen ere, lehentasun horietaz hitz egin dute Iridoyk eta Silanesek gaur goizean. Behin plan zuzentzailea idatzitakoan, hiru udalerrien arteko lotura eman beharreko lehen urratsean, Irun Plaiaunditik Amuterekin lotuko duen bidegorriaren eraikuntza lehenesten du EAJ-PNVk. Plaiaundi Institututik egingo den lotura hori txirrindulariek bakarrik erabiliko duten alternatiba izango da, ibilgailuekin batera ibiltzea eta horrek dakartzan arriskuak ekidinez. Gainera, inguruneaz gozatuz, Plaiaundiko parke ekologikoaren ertzetik paseatzeko aukera eskainiko du.

Mendelu eta Amute artean bizikletentzako bide egoki baten gabeziak bi udalerrietako bizilagunengan eragiten duen kezka partekatzen dute Silanesek eta Iridoyk. «Eusko Jaurlaritzari, jada, helarazi diogun kezka da» baietsi dute. «Asko dira uda sasoiaren Hondarribiko hondartzara joaten diren irundarrak eta arrazoi desberdinengatik gure hirira etortzen diren hondarribiarrak, eta gure ardura da bidean segurtasun minimoa bermatzea» azaldu du Iridoyk. Halaber, proiektu horrekin Jaizubia eta Plaiaundiko parke ekologikoaren arteko lotura amaituko litzateke Amuten barrera.

Bi udalerrien artean landutako eta adostutako lehentasun horiek dagozkien batzordeetara eramango dituztela aurreratu du EAJ-PNVk. Irungo Alkateak udaletxeko talde politikoekin antolatu nahi duen bileran mahaigaineratuko ditu Xabier Iridoyk, kirol instalazioen leku-aldatzearen premia azpimarratzearekin batera; eta Aitor Kerejeta eta Silanesek ekainaren hirugarren asterako aurreikusten den erakundearen arteko batzordean aurkeztuko dute jeltzaleek adostutakoa.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako diagnostikoa partekatze eta alderatzeko asmoz, bere taldeak hiriko eragile sozial desberdinekin eta talde ekologistak, kirol elkarteak eta intereseko beste taldeak aurkitzen diren hainbat bilera aurreikusi dituela azaldu du Xabier Iridoyk.



## Irungo errealitatea gizarte eragileekin aztertze eta alderatzeko helburuarekin, jardunaldiak antolatu ditu EAJ-PNVk

Lourdes Larraza Irungo EAJ-PNVko lehendakariak Xabier Iridoy bozeramaile jeltzalearekin batera EAJ-PNVk datozen hilabeteetarako antolatu dituen ekimen eta lan-bileren berri eman zuen joan den maiatzaren 23an eskainitako prentsaurrekoan. «Beste kargu abertzaleekin eta eragile sozialekin Irungo egoera partekatzea eta kontrastatzea da ekitaldien helburua, gobernu irekia, parte-hartzailea eta integratzailearen aldeko apustua egiten duen etorkizuneko proiektua zehazteko» azaldu zuen Larrazak. Halaber, hitzaldien eta ekimenen programa horrek, irundarren bizi kalitatearen eta ongizatearen hobekuntzan eta ekonomiaren eta enpleguaren suspertzean oinarrituta dagoen jeltzaleen Irunerako proiektua osatzeko balioko du.

Hori dela eta, hiriaren etorkizunean eta pertsonengan gehiago pentsatuko duen eredu baterako aldaketa beharrezkoa dela azpimarratu zuen bozeramaile jeltzaleak. «Irunek gobernu aldaketa behar du, Irundarren bizi kalitatearen hobekuntzan eta ekonomiaren suspertzean apustu sendoa egingo duena» adierazi zuen Xabier Iridoyk. «Horregatik, enplegua eta suspertze ekonomikoa lehenesten ditugu gure hiri proiektuan» baietsi zuen hautetsi abertzaleak.

Horren harira, suspertze ekonomikoa eredu eta gizarte eta kultura ereduak sakontasunez aztertze lan taldea osatu du EAJ-PNVk. Egitarauaren baitan, lan taldearekin egingo diren barne-hitzaldi eta konferentziak daude, baita Irungo eragile desberdinekin besteak beste, gizarte, ekonomia, kultura, edo kirol arlokoak; hiriko analisi sozioekonomikoa alderatzeko helburuarekin antolatu diren ekimen irekiak ere. «EAJ-PNVk pertsonekin duen konpromisotik abiatuta, hiriko eragile guztien ekarpena eta parte-hartzea funtsezkoa dela deritzogu» azaldu zuen zinegotzi jeltzaleak.

Gauzak horrela, maiatzaren 29an hitzaldi-sortari hasiera eman zitzaion Batzokian. Bertan gure lurraldeko gizarte zerbitzuen egoerari eta krisialdi testuinguru honetan laguntza eta zerbitzu orokorrak bermatzeari buruzko hitzaldi irekia eskaini zuten Maite Peña Gipuzkoako EAJ-PNVko Gizarte Politiketako arduradunak eta Eider Mendoza Batzar Nagusietan Gizarte Zerbitzuetako EAJ-PNVko bozeramaileak.

Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko Presidente eta Imanol Lasa aurreko legegaldian Foru Aldundiko Parte-hartze arloko zuzendaria eta egun Zarauzko zinegotzia Irungo lan taldearekin elkartuko dira ekainaren 4an Gobernu Onaren oinarriak aztertze. Egun batzuk beranduago, ekainaren 19an, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun arloko Sailburua, Arantxa Tapia, Irunen izango da. Aipatutako taldearekin lan bilera egingo du sailburuak eta, jarraian hitzaldia eskainiko du eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlan giroa sortzeko eta beren esperientziak plazaratu eta kezkek mahai gainean jartzeko asmoz.

Azkenik, Andoni Ortuzar EBBko presidentearekin laugarren bilera bat egingo dela aurreratu zuen bozeramaile jeltzaleak, nahiz eta data oraindik zehazteke dagoen.

«EAJ-PNVk Irumentzat proiektua duen arren, beharrezkoa da irundarrekin partekatzea eta osatzea, proiektu horren ardatza pertsonak direlako. Horregatik, interesatuak dauden hiritarrak hitzaldietara joatera eta beren galdera eta ekarpenak helaraztera animatzen ditut» amaitu zuen Xabier Iridoyk.



## Europar mugikortasun sistema garbiagoa, erosoagoa eta merkeagoaren aldeko apustua aldarrikatu zuen Izaskun Bilbao Irunen

Izaskun Bilbao Barandica Europako legebiltzarrerako hautagai jeltzaleak Europa mailako mugikortasun sistema integratua sortzeko EAJ-PNVk egiten duen proposamena aurkeztu zuen joan den maiatzaren 20an Irungo Santiago zubian. Bidaiariei erosotasuna eta merkantziak garraiatzen eta garraio materiala egiten duten enpresei lehiakortasuna eskainiko die sistema honek. Garraio guztiek produzitzen dituzten datuak kudeatzeko sistema adimenduna eraikitzea eta eskaintza integratua planteatzea da ekimenaren xedea, eragiketa bakarrean bidaia edo garraio bat aukeratzea eta kontratatzea ahalbidetzea, denbora eta prezio aukerak emanez eta azken kilometroraino mugikortasun sistemaren xehetasun guztiak eskainiz.

Xabier Iridoy, Irungo EAJ-PNVko udal bozeramailea, M<sup>ñ</sup> Eugenia Iparragirre senatari irundarra eta hainbat ordezkari politikoez lagunduta, erabiltzaile guztien eskubideak bermatuko dituen ereduaren aldeko apustua egin zuen Bilbao, mugitzeko arazoak dituztenenak barne. «Konpromiso honen alde lan egingo dugu, Atlantiar Ardatzeko gure zatia bezalako oinarriko azpiegiturak eraikiz. Gaitasun teknologiko eta industrialaren ekarpena egiten dugu, eta trukean Europak erosotasun eta lehiakortasun handiagoa, berotegi-efektuko gasen murrizketa sakona eta kalitatezko enplegu-harrobia itzuliko dizkigu» adierazi zuen. «Gure sare ekonomikoak posizio ona dauka iraultza honen onurak jasoko dituzten sektore guztietan. Euskadik Europan eskain dezakeen onenaren adibiderik onena da; eta Europak, horren truke, bere hiritar guztiei eskaintzen dienaren adibidea» jarraitu zuen.

Bilbao Barandicak azpimarratu zuenez, euskal Y trenbidean eta azpiegitura teknologikoetan egindako bestelako euskal inbertsioak oinarrikoak izango dira berrikuntzaren bitartez, kalitatezko enplegua sortzeko. «Garraioaren industriak 10 milioi langile hartzen ditu gaur egun, enplegu guztien %4,5 eta Barne Produktu Gordinaren %4,6. Garraiorako materialaren fabrikazioak sortzen du Barne Produktu Gordinaren % 1,7 osagarria, eta enpleguaren % 1,5. Teknologiarekin eta informazio tratamenduari eta telekomunikazioekin lotuta dauden prestazio horiek eman ahalko dituzten teknologiak sortzea izango da hurrengo urteotarako enplegu harrobirik handienetako bat.



## Nekazal sektorea babesteko eta ekonomikoki suspertzeko beharra azpimarratu du EAJ-PNVk

San Isidro eguna gerturatzeko ari zela aprobetxatuz, Xabier Iridoy hiriko baserri batera hurbildu zen joan den maiatzaren 13an lehen sektoreak bizi duen egungo egoera eta landa inguruneetan garatzen den jardura zuzenean ezagutzeko. EAJ-PNVko zinegotzi eta Uri Buru Batzarreko kideez lagunduta, bozeramaile jeltzaleak adierazi zuen «nahiz eta Irun udalerritertziarioa izan, ezin dugu ahaztu hiriko nekazal eremuetan gauzatzen den jardura.

Bisitaldian zehar, ekonomiaren suspertzeak EAJ-PNVren hiri-proiektuan duen garrantzia azpimarratu zuen Iridoyk, «lehenengo sektorean ere lortu nahi dugun susperraldi ekonomikoa. Hain zuzen ere, baserriaren errealitatea, dituzten beharrak, kezka eta ardurak ezagutzeko hurbildu gara gaur baserri batera» azaldu zuen zinegotzi abertzaleak. «Eragile sozial eta ekonomikoekin burutzen ari garen bileren eta topaketen baitan, gure kulturaren eta ekonomiaren parte den sektorea babesteko eta indartzeko, baserriaren eskaerak eta proposamenak ere ezagutu nahi izan ditugu» jarraitu zuen.

«Gaur goizeko topaketan hiritarrek tokiko produktuak kontsumitzeko garrantziari buruz kontzientzia hartzearen beharra helarazi digute, horrek ekonomiaren suspertzea, gure nekazal ingurunea baldintza ezin hobean mantentzea, eta ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko gertutasuna dela eta, CO<sub>2</sub>-aren isurpenak murriztea dakartzalako» azaldu zuen Iridoyk.

Halaber, landa inguruneek hiriari eta gizarteari egiten dioten ekarpena onartu zuen bozeramaile abertzaleak, eta abeltzaintzako instalazioak berritzeko eta hiritarrei produktu osasuntsu eta kalitatezkoak eskaintzeko baserriarrek duten gaitasuna eta egindako ahalegina nabarmendu zuen. «Krisiak lehenengo sektoreari ere eragin dio; baliabide eta diru-laguntza gutxiago dago makinerian inbertitzeko, produktuen kontsumoa aldatu egin da, belaunaldi-erreleboaren arazoari aurre egin behar izaten diote, etab. Hala ere, askok beren nortasuna eta bizimodua nekazaritzari eta abeltzaintzari lotuta mantentzearen aldeko apustua egiten dute» adierazi zuen.

EAJ-PNVko bozeramaileak bisitaldia aprobetxatu zuen Olaberriako Bailararen babeserako

Plan Bereziaren aldeko apustua berresteko, ingurumenaren aldeko defentsaren eta baserriarren erabilera tradizionalen nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza; arteko beharrezko oreka nagusitu dadin. Landa ingurunearen eta hirigunearen arteko brexa ekiditeko, azpiegiturak eta oinarritzko zerbitzuak bermatzeko beharra azpimarratu zuen. Horren harira, EAJ-PNVk 2013an auzo-bideak hobetzera bideratutako partidari 44.000 euro gehitzea proposatu zuen; udal gobernua aurreikusitako 6.000 euroak nahikoak ez zirela kontuan hartuta;

Era berean, Irungo Udalak Behemendi Landa Garapenerako Elkartearekin batera, Olaberria, Meaka, Ibarla, Behobia, Txenperenea eta Ventasko landa eremuetarako eskaintzen duen eskaera azpiko garraio publikoaren zerbitzua aipatu zuen Iridoyk. «Hirigunetik urrun dauden gunehorietan bizi diren pertsonen leku-aldatzeak errazteko beharrezko zerbitzua da» baietsi zuen.

Azkenik, Irungo nekazal eremuek beren nortasuna eta idiosinkrasia mantendu dezaten, esku-hartzeak bultzatzeko bere konpromisoa agerian utzi zuen Xabier Iridoyk.

---

## Buletin honetan ere...



### Euskadiren interesak Izaskun Bilbao Barandicak defendituko ditu European

Joan den maiatzaren 8 gauean EAJ-PNVk hasiera eman zion Hondarribian Europako hauteskunde kanpainari. Mitina baino lehen, Izaskun Bilbao eta Jean Tellechea legebiltzarrerako hautagai jeltzaleak protagonista izan ziren Bidasoaren uretan zehar egin zen ekitaldi hunkigarrian. Ortuzar eta Bilbao, beste hainbat ordezkari jeltzalerekin, besteak beste, Xabier Iridoy Irungo alkatetzarako hautagaia, Hondarribitik Hendaiara itsasontziz abiatu ziren. Bertan zegoen Tellechea haien zain, eta barkuan igo eta gero, Hondarribira itzuli ziren. «Batzuentzat Bidasoak muga islatzen du. Guretzat, aldiz, ibai bat da, izadiaren altxor bat baino ez. Hondarribia Euskadi da, baita Hendaiara ere; Hondarribia Europa da, baita Hendaiara ere. Bidasoak ez gaitu banatzen; euskaldunok batu eta Europarekin elkartzen gaitu» adierazi zuen Ortuzarrek.

Ekitaldi nagusian, Iñigo Urkullu lehendakariak euskal eredia defendatu zuen, estrategiarekin eta oinarriekin, giza garapena eta hazkunde iraunkorra bermatzeko. «Euskadi Europa da. Euskadik ordezkari izatea du Europa euskaldunon interesak defendatzeko. Eusko Alderdi Jeltzalea behar dugu egunero, gazteentzako enplegua sortzen duen Europaren alde egiteko» adierazi zuen.

Andoni Ortuzarrek, aldiz, gertutasuna azpimarratu zuen EAJren balore nagusi bezala. «Izaskun eta Jean dira euskaldunok European dugun berme bakarra. PPri eta PSOERI ez zaie Euskadi interesatzen. Ez zaizkie euskaldunak axola, ez gure arazoak, ezta gure ilusioak ere. Ez du inork euskaldunok baino hobeto Euskadiren alde lan egingo» ziurtatu zuen.

Ildo horretan, Izaskun Bilbaok baietsi zuen lan handia bermatzeko duela, bai Bruselan bai Estrasburgon, beste Europa baten alde egiten dutenekin batera Euskaditik gehiago egiteko. «Nire asmoa jendearekin eta orain arte egin dugun lanarekin jarraitzea da. Lan handia egiten dugu, jendearekin, euskal gizon eta emakumeekin, beti pertsonengandik hurbil. Bruselan esfortzu horiek guztiak batu nahi ditugu. Pertsonak erreskatatuko dituen Europa egin nahi dugu. Espekulazio eta adreiluaren alternatiba eskaini nahi dugu, pelotazo eta ustelkeriaren alternatiba. Eta horregatik, ezagun egiten gaituzte, badakite gu Euskadikoak garela. Berrikuntza komisario andreak esan du: hogeita hamar urtetan egin duena ikusita, egon badago argia eta itxaropena Europarentzat».

Azkenik, Jean Tellechea EAJ-PNBko hautagaiak esan zuenez, Europak Madrileri eta Pariseri adierazten dio bi estatuen arteko lurralde bat dagoela. «Estatuen Europak Nazioen Europari tokia utzi behar dio. Aldaketa hau bultzatu behar da. Euskadi izan behar da Europa eraikiko duen motorra».

## Ventasen eremu bat estaltzeko, Belasko Eneako aparkalekua eraikitzeko eta Luis Marianoko gizarte zentroan sarbide baten azterketa eta proiektua egiteko partidak proposatu ditu EAJ-PNVk

Maiatzako Osoko Bilkuran jorratu den kreditu aldaketarako mahai gainean jarri dituen proposamenak aurreratu zituen duela egun batzuk EAJ-PNV Udal Taldeak. Xabier Iridoy bozeramaile jeltzaleak adierazi zuenez, «agintaldian zehar aldarrikatu ditugun esku-hartzeak planteatu ditugu oraingo honetan ere; irundarren bizi kalitatea hobetzea helburu duten ekintzak dira». Zentzu horretan, EAJ-PNVk 55.000 euro proposatu ditu Ventasen eremu bat estaltzeko. «Joan den urteko azaroan 60.000 euro eskatu genituen esku-hartze horretarako. Proiektu bat dago eta jakitun gara hasierako partida ez dela nahikoa hori aurrera eramateko. Partida berri bat erantsi nahi izan dugu Ventasko bizilagunen eskaera, behingoz, errealtate bilakatu dadin. Gainera, udal gobernuak 100.000 euroko hainbat urtetarako partida sartzeko konpromisoa hartu du» azaldu zuen zinegotzi abertzaleak.

EAJ-PNVk gobernu sozialistarekin negoziatutako bigarren proposamena Luis Mariano Gizarte Zentroan terrazarako irteeraren azterketa eta ondorengo proiektua izan da, 15.000 euroko partidarekin. Zentrora joaten diren adineko pertsonen atari zabalean egoteko aukera eskainiko litzaieke proiektu horrekin. Halaber, eremu hori soinketarako aparatuekin eta eserlekuekin ekipatu ahal izango litzateke. «Horrek guztiak beren bizi kalitatean hobekuntza garrantzitsua ekarriko luke» baietsi zuen Iridoyk.

Nahiz eta kreditu aldaketan ez aurreikusi, eraikitzeke dago Belasko Enean San Antonio de Padua parke ondoko aparkalekua. Lehenengo fasean petankarako gunea eraiki zen, baina aparkalekua falta da oraindik. «Gure taldetik partida bat sartzeari proposatu dugu horretarako, baina Ogasun arloko ordezkariak esku-hartze hori obra sailean dagoen aurrezki kalkuluekin egitea posible izango litzatekeela adierazi digu, 25.000 euro inguruko kopuruarekin» azaldu zuen Iridoyk.

Horretaz gain, Iridoyk bere poza adierazi zuen Luis Mariano eta Artalekuren arteko lotura hobetzeko asmoz, EAJ-PNVk proposatutako igogailuaren eraikuntzarako 129.000 euro sartu direlako. Partida hau 2015erako aurreikusten diren 800.000 euroekin osatuko da. «EAJ-PNVk irundarren mugikortasuna hobetzearen aldeko apustua egiten du, eta igogailuak, ezbairik gabe, horretan lagunduko du» ziurtatu zuen udal zinegotziak.

EAJ-PNV ez da Gaztelu Zaharreko bidez ere ahazten. Hainbat urte daramatza talde jeltzaleak esku-hartze hori eskatzen eta bultzada bat behar du. Kreditu aldaketa honetan ez da bidearen zabalkuntzarako partidarik egongo, «baina EAJ-PNVren eskaerari esker, Zaisarekin eta bestelako jabeekin lurzoruaren negoziazio-kudeaketa hasteko konpromisoa hartu du udal gobernuak» esan zuen bozeramaile abertzaleak.

Azkenik, kreditu aldaketa honetan udal gobernuak erakutsi duen jarrera aldaketa azpimarratu zuen Xabier Iridoyk. «Azken hilabeteotan gobernuari proposamen itxiak aurkezteagatik eta ekarpenik egiteko aukerarik ez emateagatik egindako kritikek beren eragina izan dutela ikusi dugu. Oraingoan, proposamenak egin ditugu, negoziatu eta Ogasun Batzordera eraman dira. Talde politikoekin adostasun zabalak lortzeko bidea hori dela uste dugu» amaitu zuen Iridoyk.



## EAJ-PNVk erakundeen arteko elkarlanaren eta gizarte politika bateratuen aldeko apustua egiten du

EAJ-PNVk antolatutako hitzaldien artean, Eider Mendoza EAJ-PNVko Batzar Nagusietako Gizarte Politiken bozeramaileak eta Maite Peñak, EAJ-PNVko Gipuzkoako Gizarte Politiken arduradunak, egungo zerbitzu sistema eta honen etorkizunari buruzko hitzaldia eskaini zuten atzo Irungo Batzokian.

Eider Mendozak alderdiak gizarte politiken alorrean egindako lana azpimarratu eta goraipatu nahi izan zuen, egindako lanaren ondorio da egun ezagutzen dugun sistema. Mendozaren esanetan, sistema hau oso ona da, baina baita garestia ere, horregatik mantentzearen, guztiok ahalegin berezia egin behar dugu. Halaber, «Euskadin bezalako eredurik inon ez dagoela ere esan zuen, eta horregatik, dugun sistemaz harro egon behar dugu» gaineratu zuen.

Maite Peñak, berriz, geroz eta laguntza behar gehiago eta baliabide gutxiago daudela azpimarratu zuen. Krisiak eragina du horretan, baina baita gizarteak bizi dituen aldaketa sakonak ere, hala nola, familia egituren aldaketa, emakumea lan munduan sartu izana edota geroz eta adineko jende gehiago egotea. «Horrek guztiak eragiten du egunetik egunera laguntza behar duten herritar gehiago egotea, hori dela eta, sistema aldaketara egokitzea eta etorkizunari buruz hausnartzea ezinbestekoa da, sistema nola mantendu eta sostengatu dezakegun galdegin behar baitiogu geure buruari» adierazi zuen Peñak.

Sistemaren etorkizuna bermatzeko, beharrezkoa da guztiok ahalegin berezia egitea, baina beharrezkoa da ere erakundeen arteko elkarlana, gizarte politika bateratuak sortzeko. Ander Rodriguezek berriki egindako adierazpenen harira, Mendozak Eusko Jaurlaritzak murrizketarik egingo ez duela argitu nahi izan zuen, eta Eusko Jaurlaritzak gizarte zerbitzuetara eskaintako aurrekontua inoiz baino handiagoa dela gaineratu zuen.

Azkenik, Maite Peñak argi utzi nahi izan zuen, egoera zaila dela eta horregatik guztion ahalegina ezinbestekoa dela. "Posible da guztiok egunen batean zerbitzu eta laguntza hauek behar izatea, eta orduan konturatzen gara zeinen garrantzitsuak diren gizarte politikak". "Erronka handia eta garrantzitsua da, baina EAJ-PNV lanean ari da, etorkizunera begira ari da, sistema nola hobetu, mantendu eta sostengatu dezakegun jakiteko" amaitu zuen Peñak.

---

## Europako hauteskundeetan EAJ-PNV bigarren indarra izan da Irunen

Maiatzaren 25eko Europako legebiltzarrerako hauteskundeetan EAJ-PNV bigarren indarra izan da Irunen 3.232 botorekin (%17,49). Alderdi sozialistatik 951 bitora geratu da alderdi jeltzalea, eta hiriko bost auzotan irabazi du: Arbesen, Behobian, Dunboan, Alde Zaharrea eta Santiago-Beraunen. EHBildu, berriz, hirugarren indarra izan da 2.589 botorekin. Halaber, azpimarratzekoa da hauteskunde hauetan PSEk Irunen izan duen beherakada nabarmena, 2009ko europar hauteskundeetan ateratakoa baino 3.304 boto gutxiago eskuratu baititu. Adierazgarria izan da, era berean, abstentzioaren datua: hiritarren %60,26ak ez du botoa eman.

EAJ-PNV pozik azaldu da Irunen lortutako emaitzekin eta datorren urteko udal eta foru hauteskundeetara begira, gogor eta ilusioz lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du.

---

## Ba al zenekien...

### PSE Euskal Selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren aurka

EAJ-PNV Udal Taldeak, Bildu eta EB-Brekin batera, Euskal Selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren aldeko mozioa eraman zuen maiatzako Osoko Bilkurara. Bertan, besteak beste, Euskal Selekzioak nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan eta aldarrikatzen zen, eta txapelketa horietan parte hartzeko ezarrita dituzten betoak kentzea eskatzen zen.

Hori guztia, Estaturik gabeko nazio edo lurraldeetako federazioek nazioarteko federazioen parte izan daitezen eta lehiaketa ofizialetan parte har dezaten eragozpen juridikorik ez dagoela ulertuta. Hau da, Espainiako, Europako edo nazioarteko ordenamendu juridikoan ez dago euskal federazioen proiektzio edo dimentsio internazionala debekatu edo eragotziko duen aginduzko araurik. Kontua ez dago, beraz, ezintasun juridikoan, borondatean baizik, euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren aldeko aldarriari.

Gauzak horrela, PSEren borondatea argi geratu zen: lehenik eta behin, mozio alternatiboa aurkeztu zuen, hasierakoaren helburutik asko urruntzen zena; ondoren, sortutako eztabaida ez zitzaion askorik interesatzen; eta, azkenik, EAJ-PNVk, Bilduk eta EB-Bek aurkeztutako testuaren kontra bozkatu zuen.

---